

# B

BARREN

TOKIKOM



# Anateusk

Gizarte osasunean aitzindari



## GARATE JANTZI-DENDA

**Txalekoa**  
52,00 €

**Jertsea**  
62,00 €

**Kotoizko kamiseta**  
30,00 €

**Alkandora**  
49,50 €

**Poltsa**  
75,00 €

**Estola**  
19,95 €



San Bartolome kalea, 13  
Tel.: 943 743 037

## IRIONDO KIROLAK



Farbanti Kuit jertsea  
**NIKITA** etxekoa  
91,00 €

Airmid jacket berokia  
**NIKITA** etxekoa  
130,00 €

Morrigan Beanie txapela  
**NIKITA** etxekoa  
35,50 €

**CONVERSE** poltsa  
46,50 €

San Frantzisko, 34  
Tel.: 943 740 956

## SARA JANTZI-DENDA

**Praka bakeroak:**  
44,95 €

**Setasko alkandora:**  
49,00 €

**Larruzko txalekoa:**  
90,00 €

**Eskuan eramateko  
larruzko diru-zorroa:**  
45,00 €

**Eskularruak:**  
25,00 €



Errosario kalea, 14  
Tel.: 943 743 555



## ASTIGARRAGA KIROLAK



Elurretako berokia  
**ROXY** etxekoa  
109,00 €

Zapatilak, **DC** etxekoak  
86,95 €

Ilez forratutako txapela  
**BARTS** etxekoa  
39,99 €

Errosario kalea, 16-18  
Tel.: 943 743 268

## FERPI

Berokia  
75,00 €

Polilarruzko poltsa  
45,00 €

Ilezko txalekoa:  
76,00 €

Jertse gorria:  
51,00 €



San Bartome kalea, 38  
Tel.: 943 740 815

## ZIUR



Alkandora beltza  
49,95 €

Jertsea:  
55,95 €

Tigre motadun galtzak  
69,95 €

Beix koloreko poltsa  
49,95 €

Diru zorroa  
35,95 €

Taxetezko poltsa  
82,95 €

Errosario kalea, 34  
Tel.: 943 531 205

# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil  
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia  
PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irueta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale  
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




ELGOIBARKO UDALA



MENDIAROKO UDALA



AIREA AIREA DE ELGOIBAR



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### EAJ-k AHT EZ-i azken aldiz

Zuen betiko estiloa, zuen ideiekin bat ez datozen planteamendu argudiatuak egiten dituen iraintzea da: kaikuak, harroak, diruzaleak, Alzheimerak jotakoak, ustiatzaileak...lotsarik ez duzue! Errespetu pixka bat mesedez!

Ohikoa da baita ere zuen jarreran, biztanleria nahastu nahia: gezurrak, desinformazioa, manipulazioa, nahasmena. Guggenheim-a eta Kuku-tza, Euskal Y-a eta Elgoibarko anbulategia, NATO, ustezko adierazpen faltsuak. Dena nahastu, ezer ez argitzeko eta zuen lotsak ezkutatzeko.

Euskal Y-a aurrera doan proiektua da, biztanleriaren gehiengoak hala nahita. EAE-ko hiriburuak euren artean, eta Bidasoaren bi aldeetako Euskadi, Europa eta Espainiako Estatuarekin batuko dituen garraio sare funtsezko bat izango da laster.

Gu ez gara inor baino gehiago, ezta inor baino gutxiago ere. Azken hauteskundeetan Elgoibarren bozkatu zutenen % 39,29-ak eman zigun bere konfiantza: Bilduri % 35,23; PSE-ri % 12,28; PP-ri % 6,4; Aralarri % 3,5 eta EB-ri % 2,2. Alderdi politiko guztiok dugu gure ordezkari-tza. Inork ez dakiena, kutsu politiko nabaria duen zuen talde sasi ekologistak nor edo zer ordezkatzeko duen da!

Bukatzeke. Jarraitu zuen bidea: irain, gezur, faltsukeri eta nahasmenaren bidea. Guk gure bideari jarraituko diogu: askatasun haize berriak datozen garai hauetan, herri hau egunez egun, pausoz pauso eraikitzeke lanaren bideari, Euskadi nazio bat izan dadin Europan. Horrela egin du EAJ-k azken 116 urteotan eta horrela egiten jarraituko du etorkizunean ere.

Elgoibarko EAK-PNVko UBB ☺

### Zarata ere kutsadura da

Asko poztu ninduen "Mugikortasun Iraunkorraren Astea 2011"-ko triptikoan, 2010. urtean Elgoibarko airea *ona edo onargarría* izan zela irakurtzeak. Baina aldi berean, ez ninduen horrenbeste poztu, mugikortasunak berak sortzen duen zarata ez irakurtzeak, eta alor horretan Elgoibarrek duen maila ez dut uste hain ona denik.

2007ko ekainerako *Zarata mapak* eginda egon behar zuten eta 2008ko uztailerako *Ekintza planak* onartuta. Egunkariaren bidez baino ez dut

izan gai hauen berri eta bertan bai Autopista (Autobidea) eta bai N-634 errepidea *Ekintza plan hobegarrien* barruan egon litezkeela zioen.

Errepide bietan bai ibilgailuak eta bai hauen joan-etorriak handitzen doaz eta honekin batera, zarata. Zerbait egiteko garaia dela uste dut, zarata ere kutsadura baita.

X.O. ☺

### Idotorbera Roleski igoera

Eskerrak eman nahi dizkiegu igoera hau antolatzen lagundu zuten guztieri, hala nola parte hartu eta animatu zuten guztieri. Batez ere Elgoibarko Lagun Taldekoak eskertu nahi ditugu, beraien igoera eguna gurekin ospatzearren, eta nola ez, eskainitako lagutza guztiagatik. Zuengatik izan ez balitz, ez litzateke hain arrakastatsua izango.

Morkaiko Mendizale Elkarte eta Morkaikoko Mendi Eskiko taldea ☺

### Nire semearen bizikleta lapurtu zutenei

Semea lagun hartuta futbol partida bat ikustera joan nintzen, joan den zapatuan, Mintxetara. Hor arte dena ondo. Ondo ez dagoena, ordea, han geunden bitartean nire semearen bizikleta desagertu izana da. Dirudienek mutlikoskor batzuek ostu zioten bizikleta semeari. Zenbait eza-gunek esandakoaren arabera, semeari ostutako bizikletarekin jolasean ikusi zituzten hamar bat urteko zortzi bat ume Plaza Handian. Honezkerok bide bazterren baten botata edo ibaian dago nire semearen bizikleta. Hala ez bada itzul diezadatele lehenbailehen, semeak faltan botatzen du eta.

M.P. ☺

## OHARRA

Azaroaren 1a Domu Santu eguna izango denez, **BARREN**eko lantaldeak jai izango du datorren aste osoan eta ez da **BARREN**en kaleratuko. Hurrengo alea azaroaren 11n jasoko duzue.





Ainhoa  
Lendinez

Kaixo Iñi! Zr moduz entrena-  
menduak? Negua ate-  
joka daukagu... zuen-  
tzat, beraz, elurra ate-joka!

Tira, aspaldian eguneroko kon-  
tua da krisian murgilduta gaudela,  
eta kirolean hori nola nabaritzen den galdetu

nahi dizut gaur. Azkenaldian kezkatu samar nago, lasterketetan  
gastatzen dugun dirutzarekin. Lizentziak eta aseguruak ordaindu,  
izen-emateak...

Adibide onena Behobia-Donostia da. Hasieran 10 bat euro ordain-  
tzen genituen izena emateko. Orain, berriz, 30. Gainera, autobidea eta  
beste hainbat gastu gehitu behar zaizkio lasterketari. Orain dela urte  
batzuk antolatzaileei idatzi nien, gehiegikeria iruditzen zitzaidala esa-  
nez. Lasterketan boluntarioek egiten dute janaria eta edaria banatze-  
ko lana. Horrez gain, produktu guztiak ziur nago dendek "eman" egi-  
ten dituztela. 20.000 korrikalari, bakoitzak 30 euro ordainduta. Nora  
doa dirutza hori guztia?

### “Azkenaldian kezkatu samar nago, lasterketetan gastatzen dugun dirutzarekin”

Kezkatuta nago halaber, beste joera batekin ere. Lehen, lasterke-  
tetan parte hartzeko dirua ordaindu behar zenean, ondoren diru-saria  
izaten zen. Azkenaldian, ordea, lasterketa gehienak ordaindu egin be-  
har dira, eta ondoren, garaikurra ematen dute. Kirol-materiala emango  
balute sikiera! Kirola eta batez ere proba herrikoiak sustatzearen alde  
nago ni, baina ez dut uste halako gastua dakarten probekin asko au-  
rerratuko dugunik. Ez zaizu iruditzen muga batzuk errespetatu behar-  
ko liritekeela?



Iñigo  
Lariz

Kaixo Ainho! Entrenamendua bide onetik  
doa. Ondo diozun bezala, neguko mendi eski  
denboraldia noiz iritsiko irrikatan gaude. Baina  
hego haize honek luzaroan jarraitzen badu elu-  
rra eskatzeko erritualen baten laguntza beharko  
dugu.

Izenemateak ordaindu beharrak neu ere nahi-  
ko gogaituta nauka, zer esanik ez nire poltsikoa.  
Izan ere, urtean zehar lasterketa dezentetan parte har-  
tzen dugunok badakigu, gaur egun, kirol probetan lehiatzeak di-  
rua balio duela. Gastu horren inguruan hausnartzen jarri naiz eta  
antolatzaileak datozkit burura ezinbestean. Izen-emateei esker ja-  
sotzen duten dirua modu askotan erabili daitekeela argi dago. Al-  
de batetik antolaketa gastuak bete behar dira, noski. Azkenal-  
dian txip bidez egiten den denbora neurketak ekitaldien kostua igo  
du. Irabazleari ematen zaion sari motak ere badu zerikusia, baina  
barnerago begiratu bagenu antolatzaileen helburuak oso des-  
berdinak direla ikus genezake. Zenbat eta proba garrantzitsuagoa  
izan eta antolaketa hobea izan izen-ematearen kostea orduan eta  
handiagoa da. Kirolariari eskaintzen zaizkion zerbitzuak ere era ho-  
rretakoak dira eta.

### “Izen-emateak ordaindu beharrak neu ere nahiko gogaituta nauka”

Baina guzti honek azken hausnarketa dakarkit. Geroz eta froga  
gehiago daude, hauek geroz eta hobeto antolatuak eta geroz eta  
jende gehiagok parte hartzen du. Berdin dio kirol mota, garai hone-  
tan lasterketa herrikoiak dira nagusi, zer esanik ez zikloturistetan  
gertatzen denaz edo triatloiaeren boomaz!! Kirol guzti hauek erresis-  
tentzia gaitasuna dute ardatz eta modu kontrolatuan eginez gero  
honek bizi kalitate eta osasunaren hobekuntza dakar ezinbestean.

## ERIK MORENO MURELAGA

*Maite zaitut. Maite-maite zaitut, ilargiraino eta buelta maite zaitut.*

*Mendaro ikastolako guraso, langile eta ikasleak bihotz-bihotzez.*



## Ainara Ladronen urtebete kartzelan daramala salatze-ko protesta-argazkia atera zuten hainbat herritarrek

2010eko urriaren 22an atxilotu zuen Ainara Ladron Espainiako Poliziak

J oan den zapatuan Ainara Ladron presoaren egoera salatze-ko argazkia atera zuten hainbat herritarrek. Urriaren 22an bete zen urtea Ladron Segikoa izatea leporatuta atxilotu zutenetik eta “epaiketa-rik ere egin gabe, etxetik 500 km-ra” dagoela salatu du Elgoibarko amnistiaren aldeko mugimenduak. Horrekin batera, gainontzeko presoeri animoak bidali dizkie eragileak eta adierazi du Euskal Herrian zabaldu den aro berrian, euren esku dagoen guztia egingo dutela “denak etxera ekarri arte eta euren eskubideak errespetatuak izan daitezen.”



### Debegesak uraren kultura berriaren inguruko jardunaldiak antolatu ditu

Datorren azaroaren 10ean eta 11n “Uraren kultura berria: teoritik praktikara” izeneko jardunaldiak egingo dira Elgoibarran, Musika Eskolan, Debegesak antolatuta. Ibaien birsorkuntza eta birgaitzea izango dute hizpide jardunaldiek eta Debegesako arduradunek adierazi dutenez, ingurumen alorreko profesionaleri zein ibai-ekosisteman interesa duten pertsona guztiei zuzenduta daude. Azaroaren 7a da jardunaldietan izena emateko azken eguna, Debegesara deituta.

### Herri Eskolako umeak Besaide mendian izan dira



Herri Eskolako guraso elkarteak antolatuta, Besaide mendira irteera egin zuten urriaren 16an, domekan, eskolako hainbat ikasle eta gurasok.

### Udal tasen inguruan duten proposamena azaldu du Bilduk



Bildu udal taldeak, eguaztenean egin zen Osoko Bilkuraren ostean emandako prentsaurrekoan azaldu zituen Osoko Bilkuran hizpide izan ziren tasen inguruan eurek egindako proposamenak. Orokorrean, “gehien duenak gehiago ordaintzea, gutxiago duenaren mesedetan” filosofia jarraitu dutela azaldu zuten eta horretarako, hobarien politikaren aldeko apustua egin dute. Nahi duenak, [www.bildu.info/el-goibar](http://www.bildu.info/el-goibar) atarian dauka euren proposamen osoa.

## Protagonistak **Aurpegi berriak Osoko Bilkuran**



Jakinekua zen aurpegi berriak izango zirena Udal Korporazioan eta joan den eguaztenean egindako Osoko Bilkuran bete zen hori. Manuela Nerea Alustizak bete zuen Ovidio Campellok lagatako lekua, eta Miren Arrate Arrietak Iñigo Zearsolok lagatakoa.

Era berean, Fernando Suarez izango da hemendik aurrera Elgoibarko PSE-EEren bozeramailea.

## Ekintza **Mugikortasunaren astea**

Joan den astean Mugikortasunaren Astea ospatu zen eta horren baitan, ekintza ugari antolatu zituen Elgoibarko Udalak. Tartean, asteari amaiera emateko, Ekobira izeneko azoka antolatu zuen Udalak, Kutxaren babesarekin eta Plaza Handian, produktu ekologikoak eta artisau lan ugari ikusteko eta erosteko aukera izan zuten herritarrek. Era berean, Emugi proiektuko ibilgailuak probatzeko aukera izan zen Leku-Eder parkean.



## Irudia **Azkenean, euria**

Asteari hasiera emateko, euri zaparrada ikusgarriek egin ziguten bisita joan den astelehenean eta aspaldian gutxiegi egindakoa denez, bat baino gehiago harrিতuko zen ziurrenik euri-jasa hura ikusita. Orduan eta gehiago hala ere, Madala aldetik pasatu zena. Izan ere, euri gehiegi egin gabe egun dezente joan direnez, herriko estoldek ohi baino hauts edo zikinkeria gehiago zuten batuta, eta horrek, kaleetatik urak bere bidetara jarraitzea oztopatu zuen. Ikusi besterik ez dago argazkian, zer nolako putzuak osatu ziren leku batean baino gehiagotan.



## **Bidezko Merkataritzako denda martxan**

Merkataritzaren alternatiba modura, ekoizleekin bidezko jarduera bat egiteko asmotan dago Bidezko Merkataritzaren denda Merkatu Plazan. San Bartolome parrokiako misio taldea da horren arduraduna eta dagoeneko, datozen hilabeteetan denda noiz irekiko duten iragarri dute. Gertuen dauden datei begira jarrita, azaroan adibidez, azaroaren 3an, 4an eta 5an egongo da zabalik denda eta baita 26an ere.

## **Bioenergetika tailerra antolatu du Haizeak**

Bioenergetika tailerra antolatu du Haizea Emakume Taldeak azaroaren 9, 16, 23, 30, eta abenduaren 14 eta 21 egunetarako. Ahozko lengoia eta gorputzarena batzen dituen ikuspegi terapeutikoa da Bioenergetika. Ulertuta, bi lengoia horiek, gure ongizatea eta ditugun harremanen kalitatea hobetu ez ezik, bizitzan ditugun helburuak areagotzen laguntzen dutela. 17:00etatik 19:30etara izango da tailerra, Artetxeko eskoletan.

## **Perretxiko erakusketa Kultur Etxean**

Azaroaren 6an eta 7an Perretxiko Erakusketa izango da ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Elgoibarko Karakate Mikologi Elkarteak antolatu du erakusketa Udaleko Kultura sailaren babesarekin eta bi egunetan, 11:00etatik 14:00ak artean eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik erakusketa ikusi nahi duenarentzat.







## ETAAREN ADIERAZPENAREN GAINEKO BALORAZIOAK

“ETAk bere jarduera armatua behin-betiko amaitzea erabaki du.” Denon ahotan ibili den esaldia da ETAk joan den eguenean, urriaren 20an, aditzera emandakoa eta ez da gutxiagorako. “Adierazpen historikotzat” jo zuen ETAk bere iragarpena, eta izan, ere, hala denez, istorio honetako bateko zein bestekoen iritziak jaso ditu BARRENEK. Historia idaztea inoiz erraza ez denez, askoren artean idatzita, betiere gehiago balioko duelakoan.

Ainhoa Mendibil Artetxe

### 1. Zer sentitu zenuen, ETAk borroka armatua lagatzen zuela iragarri zuenean?

### 2. Zeintzuk dira hemendik aurrera eman beharreko urratsak?

1. ETAk egindako iragarpena notizia ona da. Hamarkadaz hamarkada, terroristen txantaia kriminalari modu eredugarrian eutsi dion espainiar gizartearen esfortzuarri eta ausardiari esker iritsi da notizia. Bat eginda egoten jakin duelako, eta bere askatasuna defendatzen jakin duelako. Garaipen hau esku artean, askeagoa da orain. Pausu garrantzitsua da hau, baina gizarteak ez du guztiz irabaziko, ETAren atzera ezinezko disoluzioa eta desartikualazio osoa iristen ez diren bitartean.

2. Lehenengo eta behin, ETAk bizitza izorratu zien pertsona errugabe guzti haietaz gogoratu beharra daukat. Zuzenbide estatuaren sendotasunak eta espainiar guztiok demokraziarengan daukagun fedea suntsitu du ETA, eta hori da etorkizunean ere, dagoen bide bakarra. Lasai eta handitasunez jokatu behar dugu; indar demokratikoen arteko kalapitetan sartu gabe; etorkizuna, indar demokratiko guztien bat egitean eta zuzenbide estatuaren ezarpenean oinarritzen da-eta. Bat eginda egon behar dugu datorkigun lanaren aurrean. Asko lan egin dugu orain arte, eta lanean jarraituko dugu.



JAVIER NUÑEZ  
PPko zinegotzia.  
Bizkartzainak ditu.

1. Naturaltasunez. Horren zen nabarmena eta bistakoa erabakia hartuta zegoela, besterik gabe naturaltasunez hartu nuela. Eta gero, kontraesan guztiekin baina sentitu nuen historia guzti honi zor zaiola neurri handi batean abertzale sentimenduak egun duen bizitasuna eta indarra. Eta, herri honek aurrean duen erronka etorri zitzaidan gogora. Aro berri bat kudeatu behar dugu. Eta erantzunkizun horrek eragiten duen urduritasun puntu hori sentitu nuen.

2. Alde batetik uste dut jarraitu behar dugula estatua eta mota guztietako erakundeak presionatzen, konponketa luzatu eta arazoa desitxuratu egin dezaketelako. Horretaz gain uste dut presoak eta iheslariak etxera ekarri behar ditugula; denak eta orain. Eskubide guztiekin. Uste dut-eta, preso edo iheslari bakar batek dirauen bitartean, gatazkak ere hor dirauela. Gatazkak eragin duen sufrimendua aitortu beharra ere badago. Baina guk ere sufrimendu ikaragarria bizi izan dugula azpimarratu beharra dago; guk ere memoria dugula. Besteek ere aitortu behar dute, eragin diguten sufrimendua. Hori da lehenengo pausoa, eta oso pauso zaila. Eta guzti hori, txantaiarik gabe egin behar da. Ezin da onartu presoek egindako txantaiarik askatasunaren truke, ezta herriari egindakorik ere, presoek truke.



JON ETXABE  
Burgosko prozesuko  
auzipepetuetako bat





**PEIO MENDIZABAL**  
*Juan Mari Mendizabal  
 presoaren anaia*

1. ETak Aieteko adierazpenarekin bat egiteak poza eman zidan. ETaren erabakiak ez du esan nahi gatazka bukatu denik. Espainia eta Frantziaren sorre-  
 rek ekarri zuten euskal lurraldeen ukazioa. Ukazio horrek biolentzi episodio  
 gordinak ekarri ditu: frantziar iraultzak sekulako errepresioa ekarri zien Iparral-  
 deko herrialdeei; gerra karlistek eta frankismoak milaka pertsonen heriotza  
 ekarri zuten, milaka exilio... Franco hil ondoren eta Trantsizio politikoaren ha-  
 sieran Hego Euskal Herria bi autonomi estatutoetan banatu zuten; autode-  
 terminazio eskubidea ez zen jaso Espainiako konstituzioan. ETaren jardun-  
 ak eragindako ehundaka heriotza eta zauritu; estatuetak biolentziak eka-  
 rri dituen ehundaka hildako, milaka torturatu, atxilotu, exiliatu, kolpatu... az-  
 ken urteetako balantze tristea da hori. Donostiako konferentzia egoera  
 hau gainditzeko saio arduratsua eta serioa iruditzen zait. ETaren eraba-  
 kiak, hurrengo puntuak betetzeko ateak zabaldu ditu eta hori oso positi-

boa iruditzen zait.

2. Aieteko adierazpenak ibilbide orri bat zehazten du eta eragile guztiak horri lotu behar direla pentsatzen  
 dut. ETak deia luzatu die Espainiako eta Frantziako gobernuetara gatazkaren ondorioei buruz elkarrizketetan  
 engainatu daitezten, adierazpenak lehen puntuan eskatzen duen moduan. Hor bete betean preso eta  
 iheslarien gaia dago. Gerra legedia altxatu dute estatuak euskaldunen aurka eta hori indargabetzen hasi  
 beharko litzateke. Preso gaixoak, Parot doktrina, hiru laurdenak beterik dituztenekin hasi eta preso guz-  
 tien askatasuna eta iheslarien etorrerarekin jarraitu beharko litzateke. Honekin batera Alderdi Politikoen le-  
 gea ere indargabetu beharko litzateke, euskal herritar guztion eskubide zibil eta politikoak errespetatze al-  
 dera. Herriaren mobilizazioa areagotu egin beharko da eta hori da egun Euskal Herriak dituen erronketa-  
 ko bat. Alderdi politikoak, sindikatuak, eragileak adostasun eta akordio bila abiatu beharko dira, inolako  
 betorik gabe. Euskal Herrian gehiengo batek onartzen dituen aitortza politikoa (herri bat gara) eta eraba-  
 kitzeko eskubidea jasotzerakoan fase berri batera abiatuko garela iruditzen zait. Edozein modutan, eus-  
 kal herritarron borondatea eta mobilizazioa giltzarri izango dira aurrera egiteko.



**ALFREDO  
 ETXEBERRIA**  
*Elgoibarko alkatea*

1. Autoa gidatzen nengoela irratian entzun nuen. Autopistan, gutxi gora be-  
 ra Korta hil zuten tokiaren parean nengoela. Indarkeriaren jardura ber-  
 tan behera geratzen zenaren berriak poztu egin ninduen, baina ez nuen  
 ospatu. Adierazpena egiteko garaia zela, ekarpenik lortu dugun ETaren  
 bitartez, biktimen senitartekoak, biktimak (Elgoibarkoak bereziki), iragana  
 eta etorkizuna, ezagutuko dugun garai berria eta antzeko hausnarketa ba-  
 tzuek izan nituen Elgoibarrera heldu bitartean. Nolako da lortu den emai-  
 tza? Armak, presoak, biktimak, senitartekoak, giza eskubideak. Armak eta  
 pertsonak, bakoitzak atera ditzala bere konklusioak. Nik ez diot inolako  
 ekarpenik topatzen.

2. Nire ustez, lehenengoz eta epe laburrean, bakoitzak bere barruarekin el-  
 karrizketa lasai eta zintzo bat eduki beharra daukagula iruditzen zait. 48 ur-  
 te luze izan dira. Zentzurik ba al du bizi izan dugunak? Kalte ugari. Zuzen jo-  
 katu dugu? Autokritika apur bat komenigarria iruditzen zait. Biktimen eta  
 presoaren senitartekoengana gerturatzea ez litzateke pausu oker bat izango.  
 Hitz egin beharra daukagu, behar bada hitz egitea eta gertutasuna adieraz-  
 tea izan dira egin ez duguna.

**CRISTINA  
 BERAZADI**

*ETak hildako  
 Angel Berazadiren  
 alaba*

1. Azkenean, eta egia bada behintzat hiltzeari lagako diola, lasaitasuna sentitu nuen. Baina asko mindu ninduen, beraien biktimei, hau da, biktima terroristei, egin zieten aipamen berezia eginda, euren terrorismoaren erruz egondako biktima inozente guztiei aipamen txikiena ere ez egin izanak. Askok mindu ninduen horrek. Biktimez berba egin behar badute, egin dezatela biktima guztietaz, eta ez soilik eurenentzat.

2. Garbi daukadana da, kondena bete behar duenak, bete egin behar duela. Hau da, bekatua egina dago jada. Ez dut uste zigorrak arindu behar direnik. Ez dit ardurarik presoak Euskal Herrira gerturatzea; ondo irizten diot. Baina ez ordea orain zigorren eta kondenen harira negoziatzen hasteari. Legea hausten duenak, bete dezala legeak agindutakoa.

## ETak Elgoibarren hildakoak

**ANJEL BERAZADI**  
 Sigma enpresako gerentea zen Anjel Berazadi hil zuen ETak 1976. urtean, 20 eguneko bahituta eduki ostean.

**JOSE EXPOSITO**  
 1985. urtean hil zuen ETak Jose Exposito Guardia Zibila zena, pasiaran zebilela buruan tiro bat jota.

**SEBASTIAN AIZPIRI**  
 1988. urtean, Txaltxa taberna inguruan jarritako bonba auto batekin hil zuen ETak Sebastian Aizpiri.

**PATXI ZABALETA**  
 San Frantzisko kalean tiroka zuten Patxi Zabaleta 1988. urtean.

**ANSELMO DURAN**  
 Guardia Zibila zena eta **JAIME ARRESE** Elgoibarko alkate izandakoa ere hil zituzten Elgoibarren, baina Komando Autonomoiegi egotzi zituzten bi hilketa horiek.



ESTRELLA MURILLO  
ETAk hildako  
Jose Expositoren  
alarguna

1. Poztasun handia sentitu genuen etxean notizia entzun genuenean. Denok ere zertxobait askeagoak izango ginela pentsatzea pozgarria iruditu zitzaidan. Baina era berean, hau beranduegi datorrela ere uste dut eta askok, garestiegi ordaindu behar izan dugula honaino iristeko.

2. Horren da korapilatsua. Alderdi politikoen eta gobernuen esku

dago orain hau. Denak akordio batera iristea eta honek aurrera jarraitzea da espero eta desio dudana. Horrek batera, espero dut baina, presoen gaia ez dadila izan akordio eta elkarrizketa guzti horien gai nagusia. Ez dai-tezela benefiziatuak izan ezertan.

1. Urriak 20; egun hori ez dugu sekula ahaztuko. Euskal Herria garai historiko baten atarian sartu zen. Komunikabide guztietan notizia bolobolo zebilenean gu ezohiko plenoan geunden. Plenoa amaitu bezain azkar bulegoko ordenagailura jo genuen eta ETAk zabalduetako erabakia internetez ikusteko aukera eduki genuen. Erabaki horrek ilusioa eta itxaropena ekarri dizkio Euskal Herri osoari. Hamarkada luzeetako borroka armatuaren aroa amaitu da. Herri gisa garai historiko berri batetara abiatzera goaz.



SONIA GARCIA  
Mendaroko alkatea

2. Urte luzeetako gatazkak sufrimendu handia eragin du eta oraindik ere gatazkaren ondorio ugari bere horretan dira. Lehenbailehen horiei heldu eta gure herrian adiskidetzera eta giza eskubide guztietan oinarritutako bakea eskuratzea ezinbesteko lana da. Irabazleak eta galtzaileak daudenaren ustea ahaztuta, guztiok irabaziko dugu. Horretarako, espainiar eta frantziar gobernuak arduraz jokatu eta aukera historiko hau baliatu beharra dute. Era berean, abiatu beharreko elkarrizketak, guztion berdintasunezko baldintzetan oinarritu beharko dute; guztion arteko konponbidea behar dugulako, guztion parte hartzea ahalbideratu beharra dago. Bereziki, herritarrok baitaukagu konponbidearen giltza. Herritarren parte-hartzeak eta bultzadak ekarriko dio Euskal Herriari, merezi duen bakea.

## GIZALEGEAREN GARAI

IRITZIA

Geure arazoa ez da uste dugun bezain apartekoa, ez behintzat munduko beste zenbait herrialdetara begiratuta: Kurdistan, Sahara, Eritrea... Eurak ez bezala, Mendebaldeko herri zaharra gara, ez da horretan zalan-tzarik, baina geu ere *horietako beste herri bat* gara, bere buruaren jabe ez den *horietako beste bat*, eta alde guztietatik mendetako presioa jasan arren, oraindik ere hemen gaudenak geure hizkuntza, kultura, nortasun eta desirekin. Miraria dirudi. Ez da dudarik, ETAren desagerpenak, gauza asko ekarriko ditu berarekin: Lehenbailehen konpondu edoeta ezti beharko dira biktima guztien minak, preso eta iheslarien kontuak, elkarri egin dizkiogun zauriak.... Modu berean, bukatu da ETAren aitzakian oinarritzkoenari ere uko egiten zion politikakeriaren garaia, baina era berean amaitu da euskaldunok helburu zentzuzko baten inguruan ez batzeko genuen betiereko aitzakia...



Hasier Etxeberria  
Kazetaria

Esango nuke, orain artean aurrera eraman ezin izan den diskurtso zibila erneko dela gudan. Eskubide zibilak defendatzeko garaia datorkigu eta horretan izango ditugu arazo handienak, zeren nola bizi daitezke elkarren ondoan bi (edo hiru) komunitate berdintasunean, bata besteari gailendu gabetan?

Grafikoki esan ohi dut txinatarrak eta tibetarrak bizi garela elkarrekin. Batzuek aberria Txinan dutela eta beste batzuek dugula Tibetean. Gustatu ala ez, horrela ikusten dut nik hori —batez ere Iparraldean bizi naizenetik—, historiaren emaitza da errealitate hori eta denok behar dugu hemen leku, hala ere. Baina nola egiten da hori? Flandiarrek eta waloiek ere ez dute samurra euren antolatzen... Asmatuko ote dugu geuk?

Euskal gatazka deitu izan den hori politikoa baino arazo apurtxo bat zailagoa dela uste dugunok —linguistikoa, kulturala, identitarioa...—, badakigu elkarbizitza bermatuko duten arauak eta legeak beharko ditugula eskuratu. Txikiak beti nahi izaten du hori handiak irents ez dezan: legearen babesa. Baina emango al du handiak horretarako aukerarik?

Hasieran behintzat, sedukzioaren bideari heldu beharko zaio, norbanako eta herri bezala geure eskubideak zein diren argiki agertu eta dialektikari irmo eutsiz. Demokraziaren izenean esango digute *statu quo* delakoa aldatzeko ez dela aski populuaren erdia gehi bat (p+1). Geuk ere demokrazia benetakoaren izenean erantzun beharko dugu orduan *statu quoari* eusteko aski ote den populuaren erdia ken bat (p-1)... Etc. etc.

Hortik aurrera ukazioa baldin badator, bi aukera bakarrik daude: etsi ala eutsi. Hau da, geure eskubideetan etsi, ala aukera bakar gisara, erresistentzia zibil baketsua antolatzen hasi.

Norberak beharko du erabaki. Nik zer egingo dudan badakit.



## Erretratu zaharra



**1931**

Gloria Odriak ekarri du argazki dotore hau BARRENEKO erredakziora. 1931-32 urte inguruko erretratua da, eta etxeko atarian aterata dago. Idotorbe-San Pedro bailarako Egi base-rikko familia da erretratuan azaltzen dena, eta etxe ondoko gereziendoaren azpian atera zuten famili-erretratua, guraso eta seme-alabek. Gloria Odriaren aiton-amonak, ama eta osabak dira. Argazkian ageri diren guztiak hilda daude. **Zutik, ezkerretik eskumara:** Francisco Arriola, Eugenia Arriola eta Jose Arriola. **Aiton-amonak, eserita:** Antonia Soraluze eta Juan Jose Arriola.

ESKERTZA

## FRANCISCO JAVIER GARCIA HOYAS



*Gazte zinela joan zinen  
zure umore eta irrifarra falta zaizkigu,  
baina zure lehengusuek  
ez zaitugu sekula ahaztuko.*

2011ko uztailaren 30ean hil zen. Haren omenez izango da, domekan, urriak 30ean, goizeko 11:30ean Elgoibarko San Migeleko elizan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# ANATEUSK

## Gizarte-osasun arloko zentro teknologikoa



**Animaliak ezagunak dira gure artean; ez da egongo txakurrak eta zaldiak ezagutzen ez dituenik. Baina Anateusk elkarteko lagunek, animali horien gaitasun ezkutukoago batzuk ezagutarazi nahi dizkigute. Terapiarako erabiliko dituzte animalioak; baina terapia ez ezik, adar gehiago dituen proiektua da Jesus Bilbao eta Eneko Kortaberriak aurrera daramatena. Animaliekin egiten den terapia ardatz hartuta, proiektu integrala da hau.**

Ainhoa Mendibil Artetxe

**T**he Ten Million Project lehiaketaren hirugarren edizioa Elgoibarrera begira jarri da, Anateusk elkartearekin topo egiteko. Gipuzkoa Berritzenek antolatzen duen lehiaketa honek, lurraldeko proiektu berritzaileak bultzatzea du helburu eta horretarako, aurkeztutako denen artean aukeratutakoak, 40.000 euroko laguntza jasoko du, Gipuzkoa Berritzenen bultzadarekin batera. Elgoibarko Gizarte Berrikuntzarako Anateusk Elkartearen hasiera batean lehiaketara bere kabuz aurkeztu ostean, dagoeneko Gipuzkoa Berritzenek aurre-hautatutako artean dago.

### Proiektu bat, lau adar

Anateusk inguruan orain arte zerbait entzun duenak, jakingo du dagoeneko animaliekin egindako terapien inguruko ezer. Baina Anateusk hori baino ez dela uste duena, oso oker dabil. Elkarteko presidentea den Jesus Bilbao BARRENI azaldu dion moduan, Anateusk ez da behar berezidun umeekin edo eta ezintasunen bat dutenekin terapiak aurrera eramatera mugatuko; horrekin batera, formazioari,

gizarte ekintzailtasunari eta kooperazioari ere heldu nahi diote, azken emaitza, gizarte-osasun arloko zentro teknologiko erreferente bat izatera iristea da eta beraien helburua. Eneko Kortaberria fisioterapeutak eta elkarteko zuzendaritza zientifikoaren arduradunak, zehaztasun zientifikoaren beharra nabarmendu du. Herrialde desberdinetan esperientzia ugari izan diren arren, formazioan lantzeko asko omen dago eta oraindik. Horregatik heldu nahi diote beraien horri ere. Argi daukate ez dutela orain arteko medikuntza metodoei kontra egiterik nahi baina beraiena, besteak bezain hobea dela badakite, eta gainera, bata bestearen osagarriak direlakoan daude.

### Elgoibartik mundura

Bilbao eta Kortaberriak argi izan dute ideia honi tiraka hasi ziren momentutik, egitasmoa Elgoibarren kokatu nahi zutela. Baina horrek ez du esan nahi Elgoibarrera begira bakarrik egingo dutenik lan. Munduan gaurdaino existitzen ez diren berritasunak eskainiko baititu beraien proiektuak eta horrek, lekua egingo die gai berdinen inguruan



lanean dihardutenen artean. Beraien lana ere, bide ugarian kokatzen dute arduradunek. Izan ere, beraien bidea egiteaz gain, bestela sortu daitezkeen antzerako proiektuen laguntzaile eta dinamizatzaile modura ere kokatzen dute euren burua. "Erreferente internacional bat izateko jaio da proiektu hau" garbi utzi nahi izan du Bilbaok. Gai berdinaren gainean lanean dihardutenak saretzea oso garrantzitsua dela dio Kortaberriak; elkarren esperientzien berri izanda, elkar aberasteko; eta, euren, horren sustatzaile izango direla.

## Magiatik gutxi

Munduan zehar gai honetan esperientzia ugari dagoen arren, arduradunek badakite hemen inguruan ezjakintasun handia dagoela animaliekin egiten diren terapien gainean eta ezjakintasun horrek, gaizkiulertuak edo aurreiritzi okerrak sortu ditzakeela. Ez dute beraien terapia beste munduko ezer bezala saldu nahi. Argi laga nahi dute magia-rik ez dutela egiten eta ez dela hori beraien helburua. Teknika hauek ere, beraien mugak dituzte. Baina ezagutu artean, ez da jakiten zertarako eta zenbateraino balio duten. Gainera, hemendik kanpo izandako esperientziei begira jarriz gero, teknika hauen erabilerrari erreparatuz gero ohar-tzen gara, zeinen onartuta dagoen terapia mota hau hemendik kanpo. Estatu Batuetan adibidez, bostehun ospital daude dagoeneko animaliekin egindako terapiak beraien programen baitan integratu dituztenak.

Kortaberriak argi dauka teknika hauen aurrean sortu daitezkeen konfiantza falta batzuen jatorria non kokatu behar den. Betikotasunean. Hau da, berak dioten moduan, txakurrak beti izan ditugu inguruan, eta zertxobait urrutiago, baina zaldiak ere gertu. Hortaz, animalia horiekin terapiak egin daitezkeela entzunez gero, jendeari ulertezina egiten zaio. "Baina nire amari Donostian egin duten Basque Culinary Centerraren berri ematea bezala da hori. Esango du, nola egon daiteke sukaldean

erakusteko unibertitate bat! Berak betidanik egin duena da hori. Eta ez dio beste erabilerririk ezta garrantziarik ematen. Baina guk badakigu horren garrantzia kokatzen. Bada, sukaldaritza berritzailea bada, natura eta animaliak nola ez dira ba izango!" azaldu du Kortaberriak.

## Anateusk

Izenak ere atentzioa deitzeko egina dirudi eta horren jatorriari buruz galdetuz gero, arduradunek pozik erantzuten dute esanaz, proiektua denaren azalpen guztia batzen duela izenak. Ideia desberdinen batu-keta bat baita bukaerako Anateusk emaitza. Ingeleseko hitzak mahaigainera ekarrita, *Animal* da lehenengoa, *Nature* bigarrena, *Therapy*, *Technology*, *Education*, *Europe*, *School*, eta *Center* azkena. Horiek elkarren segidan jarri eta begietara edo belarrira hobeto geratu zedin egin beharreko aldaketak egin ostean lortu zuten "dena batzen duen izena".

## Laguntzeko laguntza

Horrelako proiektuek hasieran bereziki erakundearen laguntza behar izaten dutela badakite arduradunek eta alde horretatik, Elgobarko Udalak proiektuarekiko hasieratik erakutsitako jarrera ona azpimarratu dute. Baina era berean, aurrera begira erakundeetatik datorren diruaren zai egon beharrean, autofinantzaketa bideak jorratu beharra euren egitekoen artean daukatela azaldu dute. Hasierako bultzada horietan, The Ten Million Project lehiaketa irabaztea ere oso garrantzitsua litzatekeela ez dago dudarik, baina badakite zaila dela oso. Inguru industrial honetan, euren iritziz, hau baino industrialagoak diren proiektuak saritzeko ohitura handia baitago. Hala ere, hautatua egoteak berak ere balio handia du, eta hori ez dute ahazten, honen alde, dagoeneko horrenbeste ordu sartu dituzten bi arduradunek.

# "Sukaldaritza berritzailea bada, nola ez dira izango ba animaliak"

- ENEKO KORTABERRIA -



San Lazaro egoitzako nagusiek izan zuten Anateusk proiektua ezagutzeko aukera, elkarteak Idotorben daukan zentruan. Arg.: Aitor

*Irailean...*

## JAIOTAKOAK



**Garazi Agirre Isasi**  
Irailak 16  
Eneko eta Ainhoa



**Garazi Garmendia Jauregi**  
Irailak 25  
Aitzol eta Amaia



**Luken Guisasola Olaskoaga**  
Irailak 14  
Asier eta Elisabeth



**Luken Zulaika Argoitia**  
Irailak 21  
Ander eta Ainara



**Jakes Martin Isasti**  
Irailak 30  
Raul eta Nerea



**Jone Alegria Etxaniz**  
Irailak 11  
Juan eta Lorea

**Markel Justo Arrizabalaga**  
Irailak 4  
Luis eta Iratxe

**Jare Sanchez Vigara**  
Irailak 6  
Oscar eta Sonia

**Sara Barhona Ahagan**  
Irailak 18  
Jamal eta Dounya

**June Cuesta Martinez**  
Irailak 23  
Carlos eta Sara

**Miren Ballona Salsamendi**  
Irailak 24  
Ander eta Eneritz

**Nora Castro Aldazabal**  
Irailak 26  
Kaiet eta Maria

## EZKONDUTAKOAK

- Ion Arrieta eta Aintzane Arizaga Irailak 2
- Alberto Ibarluzea eta Banesa Ramos Irailak 10
- Jose Luis Ortiz eta Laura Toledano Irailak 10
- Fernando Ruiperez eta Maite Solas Irailak 17

## HILDAKOAK

- Maria Carmen Tomas Furriol • 55 urte • Abuztuak 31  
 Julia Gabilondo Elkoroiribe • 84 urte • Irailak 6  
 Nicolasa Loiola Galdos • 91 urte • Irailak 19  
 Juan Mari Mugertza Aldaregia • 78 urte • Irailak 21  
 Catalina Iriondo Aguirregomezorta • 84 urte • Irailak 27

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua  
OSOA eta 24 ORDUKOA

T A N A T O R I O A



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe  
zentruetan  
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 // (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoan atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRE**neko erredakziora edo [baren@elgoibarkoizarra.com](mailto:baren@elgoibarkoizarra.com) helbidera bidali. Jaiotakoan argazkia jartzeagatik **3 euro** kobratzen dugu.



## Nola jaso duzu ETAk behin betiko borroka armatua lagatzen duela iragarri izana?



**Itziar Ajuria**  
87 urte, erretiratu

Oso ondo irizten diot. Esperantza behintzat sortzen du. Baina beldurra ere bai oraindik hemengo batzuk, pegaren bat ipiniko ote duten. Eta aurrerantzean gauzak konpontzeko, demokrazian bizi garela esaten dute bai; bada, denon iritziak onartu beharko dira.



**Ana Mari Lasa**  
68 urte, etxeoandrea

Notiziaren zain geunden, eta uste dut poz handia eman digula denori. Ea orain beste aldetik ere ondo konpontzen diren. Aurrera begira, ETAk pauso hori eman duenez, gobernuak ere pentsatu beharko du zerbait. Beti ezingo dugu atzera begiratu.



**Juan Jose Bastarrika**  
55 urte, gozogilea

Ondo. Berandu, baina ondo. Lehenengo bidean geratutako guztiak gogoratu behar ditugu. Eta gero horiek autokritika egin eta barkamena eskatu beharko luketela uste dut eta hortik aurrera, elkarbizitza lantzen hasi beharko litzateke. Dauden zauriak, ea nola hala ixten joaten garen.



**Amaia Jauregi**  
31 urte, medikua

Poz handia hartu genuen etxean eta ospatu eta dena egin genuen. Aurrera begira uste dut, hurrengo pausoa espainiako eta frantziako gobernuak eman beharko luketeela. Eta, denak hitz egitera jarri. Etorkizuna esperantzaz ikusten dut, horregatik ospatu genuen atzo.

ESKERTZA

### ANTONIA MARTIN GARCIA



2011ko urriaren 21an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

### ENRIQUE PEREZ PEREZ



*Zure zintzotasuna  
ezagutu zuenak  
egon zaitez ziur  
betirako gogoan eramango zaituela.*

*Maitasunez, etxeoak.*

2010eko azaroaren 1ean hil zen. I. urteurrenako meza zapatuan, urriaren 29an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak alde zuretik.



## Perurenaren 'Harri eta Herri' hitzaldia jaso zuten Ikastolako gaztetxoek

Julian Iantzi izango da hurrengo, programa beraren baitan



**G**azteek euskararen gaineko gogoeta egiteko Elgoibarko Izarrak prestatutako programa bereziaren baitan jaso dute Ikastolako gaztetxoek Perurenaren hitzaldia. Harrijasotzaile moduan berak bizitakoak eta bere ibilbidea dira hitzaldian jasotzen dituenak. Julian Iantzi aurkezlearen hitzaldia eta Bua Txabal antzerkia dira hurrengo programa beraren eskaintzak.

### Munlet taldeak single berria aurkeztuko du asteburuan

Single berria kaleratu du Munlet taldeak eta datozen kontzertuetan aurkeztuko du. Madrilen lehenengo, asteburu honetan, zapatuan eskainiko duten kontzertuan eta Bilbaon eta Donostian, azaroaren 5ean eta 11n, hurrenez hurren.

Binilo moduan kaleratu dute lan berria eta taldeak adierazi duenez, 240 binilo beltz eta 90 gorri baino ez dituzte kaleratu, beraz, azkar ibiltzeko deia egin die beraien jarraitzaileei.



Baserrria bizirik!



# ‘Narrazio tailerra’ liburua aurkeztu du Mikel Hernandez Abaituak

Erein argitaletxeak argitaratu du egoibartarraren liburua

Joan den urriaren 19an aurkeztu zuen ‘Narrazio Tailerra’ liburua Mikel Hernandez Abaituak Donostia-ko Udal Liburutegiko Sotoan.

Gazte zein helduentzako interesgarria den liburua da honakoa. Narrazio tailerretan erabiltzeko modukoa ez ezik, batxilergo mailako irakaskuntzan erabilgarria, edo eta autodidakta moduan ikasi nahi duenarentzat ere egokia.

Sustatu atari digitalean Erein argitaletxeak publikatutakoaren arabera, liburu hau irakurtzeagatik soilik inor narrazio idazle bihurtuko ez den arren, “idazten, esperimintatzen eta jolasten has-teko bitarteko egoki bat aurkituko dute alderdi teorikoa zein praktikoa jorratzen dituen lan honetan”.

Horretaz gain, ‘Narrazio Tailerra’ liburuaren helburu nagusia ipuinak idazten bada ere, argitaletxeak adierazita-



Arg.: J. Urbe / ARP

koaren arabera, liburuan erakusten diren baliabide narratologikoez ez dute balio soilik istorio laburrak idazteko eta baliagarriak izan daitezke eleberriak, komikiak, nobela grafikoak eta istorio filmatuak burutzeko ere.

## Mikel Gorrotxategiren hitzaldiak eman dio amaiera ‘Izanaren izena’ hitzaldi zikloari



Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiako kideak eman zuen “Amaia debekatuta zaudel Euskal izen-abizenen historia” hitzaldia eta horrekin itxi zen aurretik Nerea Alaba, Amaia Pinacho eta Jesus Mari Makazaga ere hizlari izan dituen zikloa. [www.elgoibAREN.net](http://www.elgoibAREN.net) atari digitalean ikusi daitezke azken bi hitzaldietako bideoak, eta BARREN-en hurrengo alean, hitzaldi zikloaren inguruko gehigarria ere argitaratuko da.

## Urriaren 31n bukatuko da euskara arloko diru-laguntzak eskatzeko epea

Elgoibarko Udalak aditzera eman duenez, euskara arloko diru laguntzak eskatzeko epea datorren astelehenean, hilaren 31an bukatuko da. Elgoibarren erroldatuta daudenek eskatu ditzakete diru-laguntza horiek. Besteak beste, barne-tegian euskara ikasteko laguntzak, zenbait ikastaro egiteko laguntzak, publizitate errotuluak euskara hutsean jartzeko laguntzak edo eta herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko laguntzak eskatu daitezke.

Aipatutako diru-laguntzak eskatzeko, Kultur Etxean dagoen Elgoibarko Udaleko Euskara Sailean aurkeztu behar dira dagozkien eskaerak.

## Dimas Gilek grabatutako pelikula botako dute Herriko Antzokian

Plaza Txikiko Jai Batzordearen ekimenez ezagutarazi zen Dimas Gilek 60. hamarkadan grabatutako irudiekin egindako dokumentala eta orduan Kultur Etxean egindako lau emanaldiak nahikoa izan ez zirela baloratu ostean, Herriko Antzokian ere eskainiko dute orain, ‘Jaiak eta Bizitza, Elgoibar 1961’ pelikula. Kultur Etxean eskaini ziren saioetan jendea kanpoan geratu zelako hartu du Herriko Antzokian eskaintza hau egiteko erabakia Udalak eta azaroaren 1ean eta 3an egongo da pelikula ikusteko aukera.

## Uxue Alberdik domekan dauka final-laurdenetakoa

Idiazabalen jokatu da Gipuzkoako Bertso Txapelketako laugarren final-laurdenetakoa domeka honetan, 17:30ean. Bertan neurtu beharko ditu bertso-indarrak Uxue Alberdik, Jon Martinen, Nerea Elustondoren, Oier Aizpuruaren, Ainhoa Agirreazaldegiren eta Felix Zubiaren kontra.

# EVELYN SANTOS

Futbolaria

**Itziar Gurrutxaga eta Eli Ibarrearekin batera, azken urteotan nesken goi mailan aritu den futbol jokalaria elgoibartarra da Evelyn Santos. Aurreko biek ez bezala (Athleticec jokatu dute) kolore txuri-urdinak defendatzen ditu baina Evelynek. Hegaleko postuan jokatzen du Realean.**

**“Futbolik gabe ez dut nire bizitza ulertzen”**

**Real Superliga txapelketako 6. postuan dago une honetan.**

Bai, eta zaila izango da sailkapenean gora egitea. Nahiko ondo hasi dugu denboraldia, eta daukagun taldearekin lehen hamar sailkatuen artean egoteko arazorik ez genukeela izan behar uste dut. Sailkapenean lehen lau postuak, Europako ateak irekitzen dituztenak, garestiegi daudela uste dut. Maila handiko taldeak daude.

**Zein dira Superliga irabazteko talde faboritoak, zure ustez?**

Iaz ere talde ona zuten, baina aurten egin dituzten fitxaketekin talde oso ona osatu du Bartzelonak. Athletic ere goian ibiliko da, Rayo Vallecano moduan. Huelvak ere talde oso ona duela esan didate, jokatzen ikusi ez ditudan arren.

**Hiru euskal talde daude Superligan. Barañaingo Lagunak eta Athleticen aurretik geratzea posible ikusten duzu?**

Lagunak taldea ez dut zuzenean ikusteko aukerarik izan, baina aurten ez dut uste oso talde ona dutenik. Athleticek bai. Bi jokalaria on fitxatu ditu eta gure aurkako derbyan (1 eta 3 irabazi zuen Athleticcek) talde oso ona dutela erakutsi zuten. Oraindik orain gu baino maila bat gorago daude.

**Lehiatzeko sistema aldatu du aurten Superligak.**

Bai. Iaz arte bi fasetan jokatzen zen txapelketa. Lehenengoan zonaldeko taldeen aurka jokatzen genuen eta bi talde onenak sailkatzen ziren hurrengo fasean, Espainiako talde onenen aurka, lehiatzeko. Talde batzuetarik besteetara alde handiegia zegoela-eta, maila orekatze aldera, Espainiako 18 talderik onenekin osatu dute aurten Superliga.

**Ba al dago Messiren pareko jokalaririk Superligan?**

Veronica Boquete galiziarra da ikusi dudana jokalaririk onenetarikoak. Iaz arte Espanyol taldean jokatzen zuen eta Estatu Batuetako ligan, Philadelphia Independence taldean, jokatzen dihardu orain (urteko jokalaria



rik onena aukeratu berri dute han). Realean gurekin hiru denboraldi egin zituen Irene Paredes (Legazpia, 1988) ere jokalaria izugarria da. Athleticcek fitxatu zuen iaz.

**Zubietan jokatzen dituzue etxeko partidak. Gustura zaudete jarraitzaileen erantzunarekin?**

Bai, eta batzuk oso fidelak dira. Duela urte batzutatik ona igartzen da gero eta zale gehiago hurbiltzen direla Zubietara. Athleticen aurkako derbyan 1.500 zale batu ziren, joan den irailean.

**Nola animatuko zenuke emakumeen futbola ikustera, sekula joan ez den norbait?**

Batzuk harritu egingo lirateke nesken futbolak izan dezakeen mailarekin, eta gure partiduek duten erritmoarekin. Emakumeen futbola asko profesionalizatu da, eta fisiko aldetik gizonen pareraino heldu ezin badugu ere, ikuskizuna ematen dugula uste dut. Bestalde, komunikabideek jarraipen txikiegia egiten digute eta horregatik ez da jende gehiago gerturatzen emakumeen futbolera. Dena dela, aurrerapauso handiak eman dira emakumeen futbolekin, ezin da orain dela bost urteko egoera eta gaur egungoa alderatu. Eta oraindik ere hobera egingo du. Hemendik hamar bat urtera jende gehiago gerturatuko da emakumeen futbola ikustera, ziur.

**Zuri dagokizunez, noiz arte jarraitzeko asmoa duzu?**

Ez dut ilusiorik galdu. Fisikoki ondo nagoen artean, eta futbola eta lana uztartu ditzakedan bitartean jarraitzeko asmoa daukat. Bizitza guztian futbolekin jokatzen otean, futbolik gabe ez dut nire bizitza ulertzen.



# Mugertza krosa Europako krosen egutegi ofizialean sartu dute

Europako atletarik onenak etorriko dira Elgoibarrera

**M**aila bat gora egin du Juan Mugertza Nazioarteko Krosak, Europako Atletismo Federazioak (EAA) datorren denboraldiko Europako krosen egutegi ofizialean sartu baitu Elgoibarkoa. Europako krosen egutegi egoteak hainbat onura ekarriko dizkio Juan Mugertza krosari. Batetik, oihartzun handiagoa edukiko du nazioartean, eta, bestetik, Europa osoko atletarik onenak etorriko dira Elgoibarrera.



## Elgoibartarren bizipenak Ehun Milak proban, mendi emanaldi zikloan



Jose Luis Diez "Txelu" Asier Arrieta eta Edu Uribe elgoibartarrek Ehun Milak

proba gogorrean bizitakoak kontatuko dituzte, datorren eguaztenean (azaroak 2), eskainiko duten hitzaldian. Morkaiko mendi taldeak antolatutako 'Asteazkentan Mendi Emanaldiak' zikloko estreina-ko emanaldia izango da. Bigarren emanaldian, azaroaren 9an, Fidel Mendiak bere bi afiziorik kuttunenak, argazkilaritza eta muturreko eskia, uztartuko ditu. Musika eskolako auditorioan eskainiko dituzte b emanaldiak, 21:30etik aurrera.

## Mendaroarrak bikain Urduñako mendi duatloian

Mendi duatloi proba jokatu zen, joan den domekan, Urduñan. Banaka edo bikoteka parte hartu zitekeen, eta Mendarotik hiru bikote joan ziren. Maite Maiorak eta Azibar Iraolagoitiak sailkapen nagusiko 3. postuan amaitu zuten. Maiorak denborarik onena egin zuen antxitxikako proban, eta Iraolagoitiak hirugarren postuari eutsi zion mendi bizikletako proban. Iosu Juaristik eta Aritz Ruiz De La Torrek osatutako bikoteak ere lan bikaina egin zuen eta sailkapeneko 9. postuan sailkatu ziren. Azkenik, Iñaki Gilek eta Tony Cidek zorte txarra eduki zuten. Beteranoen mailan Gil izan zen azkarrena korrikako proban, baina Cid erori egin zen bizikleta proban eta bertan behera laga behar izan zuen lehiaketa.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi **0** – Portugalete **0** (3. maila)  
 Elgoibar **1** – Hondarribia **1** (Ohorezko maila)  
 Elgoibar **3** – Tolosa **0** (Ohorezko jub.)  
 Arizmendi **1** – Elgoibar **7** (Kad. A)  
 Elgoibar **1** – Ilintxa **1** (Kad. B)  
 Elgoibar **3** – Bergara **2** (Ohorezko inf.)  
 Bergara **2** – Elgoibar **8** (Inf. txiki)  
 Anaitasuna **5** – Elgoibar **1** (Alebinak)  
 Zarautz **4** – Elgoibar **1** (Erreg. neskek)

### ESKU PILOTA

#### Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak **22** – Zazpi Iturri **21** (2. mailako jub.)  
 Lagunak **3** – Galurrerantz **11** (2. mailako kad.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg **1** – Zaragoza **2** (2.B)  
 Cafeteria King Kong **6** – Laskorain **3** (Jub.)

### ESKUBALOIA

Usurbil **22** – Alkorta Elg. **29** (Sen. mut.)  
 Urdaibai **17** – Tecnifuelle Elg. **23** (Sen. neskek)  
 Beristain Banaketa Elg. **22** – Urola **31** (Jub. mut.)  
 Lauko Elg. **34** – Urdaibai **19** (Jub. neskek)  
 Grupo Eibar **18** – Eibar **37** (Kad. mut.)  
 IMH **31** – Urdaibai **14** (Kad. neskek)  
 Cons. Alaves **18** – C. Astigarraga **17** (Kad. neskek)  
 Pakita Aitz. Aloña **19** – Bankoa Elg. **32** (Inf. mut.)  
 Hotel Txariduna **20** – Pulpo **28** (Inf. mut.)  
 Aiala **12** – Federoptikos Ikus Elg. **25** (Inf. neskek)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

#### Zapatua, 29

11:00 Elgoibar – Eibartarrak (Kadete A)  
 17:00 Haundi – Beasain (3. maila)

#### Domeka, 30

10:00 Elgoibar – Lagun Onak (futbol eskola)  
 10:30 Elgoibar – Arrasate (Aleb.)  
 12:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Inf. txiki)  
 16:30 Elgoibar – Urola (Erreg. neskek)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 29

10:30 Aterpe Elg. – Aiala B (Inf. neskek)  
 11:30 Federopticos Ikus – Zarautz (Inf. neskek)  
 16:00 IMH Elg. – Aiala Zarautz (Kad. neskek)  
 18:15 Lauko Elg. – Zarautz (Jub. neskek)  
 20:00 Alcorita Forging Group – Urduliz (Jub. mut.)

### PALA (Ikastolako frontoian)

#### Barixakua, 28

23:00 Lagunak – Atxurbide (3. mailako nag.)

**LANA**

**ESKAERA**

- Lana behar dut. Zaintzan eta garbiketan esperientzia daukat.  
☎ **689 847 947**
- Emakumea orduka lana egiteko prest.  
☎ **636 581 194**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest, elkarateak, etxeak edo lokalak garbituko nituzke.  
☎ **630 372 882**
- Emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest.  
☎ **699 232 823**
- Gizonezkoa tabernan zerbitzari, edo eraikuntzan lan egiteko prest.  
☎ **689 974 001**
- Emakumeak interna edo orduka lan egingo luke. Garbiketa lanak egiteko prest.  
☎ **699 813 826**
- Gizonezkoa lan bila. Baserri lanetan eta erainkuntzan esperientzia handia.  
☎ **685 212 060**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzen orduka lan egiteko prest.  
☎ **685 212 060**
- Mutil arduratsua eta esperientziaduna, tabernan lan egiteko prest.  
☎ **692 332 871**
- Neska lanerako prest. Etxeko lanetan eta umeak edo nagusiak zaintzen esperientzia.  
☎ **609 148 861**
- Emakumea lanerako prest. Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko.  
☎ **608 474 923**
- Garbiketa eta zaintzak egiteko prest nago. Orduka edo eta interna.  
☎ **943 741 909**

- Garbiketa, zaintza eta beste edozein lan egiteko prest nago. Orduka.  
☎ **618 052 967**
- Emakumea lanerako prest. Umeak edo pertsona edadetuak zainduz. Interna, orduka edo asteburuetan egingo nuke lan.  
☎ **669 994 669**
- Emakumea lanerako prest, umeak edo pertsona nagusiak zaintzen. Etxeko lanak egingo lituzke.  
☎ **633 150 376**
- Emakumea lan bila. Esperientzi handia pertsona nagusiak zaintzen.  
☎ **638 047 847**
- Emakumea orduka lan egiteko prest.  
☎ **690 134 485**
- LH, DBH eta batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak.  
☎ **696 295 098**
- Lehen hezkuntzan, ingelesa eta matematikako klase partikularrak emango nituzke.  
☎ **669 031 820**
- Emakumeak ordukako lanak egingo lituzke, elkarte edo portalen garbiketak eginez edo gauzez pertsona nagusiak zainduz.  
☎ **699 813 826**
- Emakumea lanerako prest, umeak edo pertsona nagusiak zaintzen. Etxeko lanak egingo lituzke.  
☎ **690 925 929**
- Emakumea edozein lan egiteko prest.  
☎ **647 175 093**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA**

- Alokairuan pisua hartuko genuke Elgoibarren. Senar emazteak eta hiru seme-alaba.  
☎ **689 847 947**

- Bi edo hiru hilabetetarako pisua hartuko nuke alokairuan.  
☎ **650 551 222 - 627 296 885**
- Emakumeak pisua alokatuko luke. Apartamentua edo 2 logelako etxea.  
☎ **659 612 096**
- Emakumeak, hiru logelako pisua alokatuko luke.  
☎ **699 813 826**
- Pisua alokatuko nuke.  
☎ **680 808 125**
- Pisua alokatuko nuke, elgoibarren. 4 pertsoneko familia batentzat.  
☎ **943 742 599 / 692 325 574**

**GARAJEAK**

- Bi garaje alokatzen / saltzen dira Leku Eder eta Jausoro plazan.  
☎ **652 727 631**
- Marradun garajea alokagai leku ederren, 4. solairuan (60 €).  
☎ **660 042 159**

**BESTELAKOAK**

- Canon EOS 500D + 18-55 S reflex digitala salgai. KIT osoarekin (bigarren bateria, tripodeta, parasola, poltsa, lentea garbitzeko kit-a ...) 450 euro. (Negoziazgarria)  
☎ **667 307 196**

**KINTOAK**

- 1966an jaiotako enafaria azaroaren 12an. Txarriduna jatetxean. Azaroaren 4a baino lehen, 35 euro ingesatu 3035 0007 27 0071018816 kontu korrontean. Anima zaitetzela!

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**  
**Prezioak: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta)**  
**Autoak saltzea: 12 euro. Bestelakoak: 6 euro**  
 Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.



I. URTEURRENA

**ANGELITA ALCIBAR URIBARREN**

2010eko urriaren 28an hil zen, 83 urte zituela.  
 Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriak 29, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.  
 Joango zaretanoi eskerrak alde zuretik.







• Zorionak, **Janire**, 6 urte egin dituzulako. Guraso, izeko eta osabaren partez. Igandean ospatuko dugu tximeleta diskotekan.



• Zorionak, **Uxue eta Endika**, musuak biontzat ama eta aitaren partez. Asko maite zaituztegu.



• Zorionak, **Intza eta Beñat**, igandean bost urte beteko dituzuelako. Patxo haundi bana etxeko guztien partez.




• Zorionak, **printzesak**, zuen 6. eta 9. urtebetetzean. Etxeko guztien partez, eta bereziki Sararen partez. Muaaaak!



• Zorionak, **Jakes**, astelehenean 4 urte egingo dituzulako. Musuak familiakoen, bereziki Markelen eta Eleneren partez.

• Zorionak, **Nerea**, domekan 6 urte beteko dituzulako. Familia guztia eta bereziki Mikelen partez.



• Zorionak, **Terremotos!** Azaroaren 1ean 5 urte beteko dituzuelako. Musu asko familiakoen eta Estherren partez.

## OSPAKIZUNAK KINTOAK



Zapatuan bazkarixa euki gendun **1976**xan jaixatakuok. Eskerrik asko antolatzaileei eta ia hurrenguan gehixao alkartzen geran!

integritatea

Debabarrena gara  
www.gurebalioak.com

gurebalioak  
DEBABARRENA

## 29 zapatua

### Feria

Hil bukaerako nekazaritza eta abeltzaintza feria

## 30 domeka

### Kirola

11:00 Mendiko Motorren Euskadiko Txapelketa Idorriben

## 1 martitzena

### Linea

17:30 eta 19:00 "Jaiak eta bizitza - Elgoibar 1961" Dimas Gilek grabatutako dokumentala eskainiko dute Herriko Antzokian, dohainik, Udalak antolatuta.

## 2 eguaztena

### Ikus-entzunezkoa

21:30 "Elgoibartarrak Ehunmilak lasterketan" Asier Arrietak, Edu Uribek eta Jose Luis Diezek kontatuko dute beraien esperientzia Musika Eskolan. Morkaikok antolatuta.

## 3 eguena

### Linea

17:30 eta 19:00 "Jaiak eta bizitza - Elgoibar 1961" Dimas Gilek grabatutako dokumentala eskainiko dute Herriko Antzokian, dohainik, Udalak antolatuta.

### Dolitika

19:00 Herri batzarra Azken asteotako gertakizunak eta azaroaren 20ko hauteskundeak landuko dir. Elgoibarko Ezker Abertzaleak

antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 6 domeka

### Jaiak

12:30 Gaztañerre eguna Altzolako Zelaia parkean, Zubibai elkarteak antolatuta.

### Erakusketa

10:00-14:00 eta 16:00-19:00 Perrebiko erakusketa Kultur Etxeko erakusketa gelan, Karakate Mikologi Elkarteak antolatuta. (Hilaren 7an, astelehenean, ere egongo da erakusketa)

## 7 astelehena

### Erakusketa

17:30-20:00 "Depresioa: XXI. mendeko pandemia" argazki erakusketa, Kultur Etxeko sotoan, Gipuzkoako Itxaropen

Telefonoak antolatuta, azaroaren 11ra arte.

## 9 eguaztena

### Ikus-entzunezkoa

21:30 "Muturreko eskia Pirineotan" Fidel Mendiaren eskutik. Morkaikok antolatuta, Kutxaren Gizarte Ekintzaren babesarekin, Musika Eskolako auditorioan.

## 10 eguena

### Hitzaldia

09:00 "Uraren kultura berria, teoriatik praktika" Debegegak antolatutako Ibaien bizien aldeko jardunaldia Musika Eskolan. (Izena emateko azken eguna: azaroaren 7a)


<b>ZINEA</b>	«La boda de mi mejor amiga» 28, barixakua: 22:15 29, zapatua: 19:00/22:15 30, domeka: 19:00 31, astelehena: 21:30	«Los pitufos» 30, domeka: 16:30	«El arbol de la vida» 4, barixakua: 22:15 5, zapatua: 19:00/22:15 6, domeka: 19:00 7, astelehena: 21:30	«Arthur eta munduen gerra» 6, domeka: 16:30	Ongarri zine kluba «Una mujer en Africa» 3, eguena: 21:30
--------------	---	------------------------------------	---	--	---

<b>FARMAZIAK (24 orduz)</b> 29 Etxeberria (Santa Ana) 30 Etxeberria (Santa Ana) 31 Fernandez 1 Yudego 2 Zabaleta 3 Etxeberria (Errosario) 4 Ibañez (Soraluze)	5 Garitaonandia 6 Garitaonandia 7 Etxeberria (Santa Ana) 8 Fernandez (Mendaro) 9 Yudego 10 Zabaleta (Soraluze)	<b>Fernandez-</b> Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142 <b>Ibañez-</b> Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638 <b>Zabaleta-</b> Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384	<b>OKINDEGIA</b> 30 domeka <b>IBARRENEA</b> 1 astelehena <b>EIZAGIRRE</b> 6 domeka <b>FOTERO</b>
--	---	---	---

**Azaroak 1**  
Ludoteka  
**ITXITA** egongo da santu guztien eguna delako.

## ORDU ALDAKETA, ZAPATUAN

Asteburu honetan neguko orduategian sartuko gara eta, beraz, ordu aldaketa egin beharko da. Zapatutik domekarako gauean ordulariak ordubetatik atzeratu behar dira: hau da, goizeko 3:00etan 2:00ak izango dira.



Astebukaera honetan **ORRAZKERA TAILERRA** Gaztelekuan. Parte hartzaileentzat bakarrik egongo da zabalik zerbitzua.



**ALOKAIRUAN,**  
*baina erosteko*  
*aukerarekin!*



% 4 ko BEZa urte bukaerara arte

Aurreko eta atzeko terraza duten  
beheko etxebizitzetan aukerak



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 943 74 44 67

**ELGOIBAR**



Azaroaren 5etik aurrera,



egunkariarekin

# Mantangorriren eskulan tailerra

24 fitxaz osatutako eskulan bilduma

Adina: 6-12 urte

sortuz jolasteko,  
jolastuz sortzeko



4 FITXAZ OSATUTAKO 6 SORTA

Azaroak 5, larunbata,  
lehenengo sorta  
BERRIA + 3,5 €

karpeta eta  
ariketen CDa  
**OPARI**

## Nola eskuratu?

Azaroaren 5etik abenduaren 10era, larunbatero  
kioskoan, BERRIarekin

Ipar Euskal Herriko irakurleek zuzenean eskatu: (0034) 943 -30 43 45

Egilea: Karmele Cruz



Balazteak



Eskola, Gurea eta Euzkoan...  
Euzkoan...  
Euzkoan...



Aukera ezazu,  
BIZI euskaraz  
**berria**